

Irunero



Antxeta Irratia:
25 urte uhinak eta
mugak euskaraz
batzen



Caser Cuidados

Zaintzak eta arreta profesionala
zure etxean

- Osasun-profesionalak
- Etxez etxeko laguntza

caser
residencial

Caser Residencial
Gipuzkoa

Etxean bezala, inon ez



aurkibidea

- Bertatik Bertara** - Ola Sagardotegiko Txotx irekiera **4**
- Kalean Bai** - Kemen dantza taldea **6**
- Oiassotik Irunera** - Ospakizun berriak **7**
- Ametsako Kimu ganbera abesbatza **8**
- Ondare kultur elkarteak **10**
- Esther Aristieta **12**
- Antxeta Irratiaren 25. urteurrena **14**
- The Wellness Corner **20**
- Bertso jarriak** **23**
- Denbora pasak** **23**
- Kirola** - Beñat Lizaso **24**
- Beti Gazte** - Los Trankilos **28**
- iGazte** **30**
- Kultura** **31**



BERTATIK BERTARA: **OLA SAGARDOTEGIKO TXOTX IREKIERA** 4



KIROLA: **BEÑAT LIZASO** 24

irunero

Erredakzioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea eta maketazioa:
Maialen Sayans

Inprenta:
Antza

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irurero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Erakunde honek Irurero diruz laguntzen du:



BEGI-BISTAN

44.240 BISITARI

2025ean Oiasso museoak 44.240 bisitari erregistratu ditu, 44.000 bisitariak lehen aldiz gaindituz.

Bisitarien herena, 14.000 lagun inguru, irundarrak izan dira, hau da, % 20 gehiago 2024. urtearekin alderatuta.

24. KORRIKA

24. Korrika martxoaren 24an eta 25eko goizaldean igaroko da Irundik.

Guztira, 3436 lekuko hartze izango dira 24. Korrikan zehar, eta 2175 kilometro izango ditu aurten ibilbideak, bidean gutxi gorabehera 460 herri zeharkatuz.

43 ETXEBIZITZA

2026ko lehen seihilekoan entregatuko dira Aduana kalean gazteentzat eraiki diren 43 etxebizitzak.

Gauzatze fasearen amaieran dago Aduana kaleko 46. zenbakian dagoen zuzkidura bizitokien sustapen berria.

50 URTE

Oporrak Bakean kanpaina martxan egongo da otsailaren 15era arte udara honetarako haur sahararentzat harrera familiak bilatzeko.

Aurtengo leloa: "50 urtez gure atek zabalik" da, esperantzari eusteko.

2 MILIOI EURO

Irungo Udalak 2026ko ekitaldiko Diru-laguntzen Deialdi Orokorra onetsi du 2 milioi euroko aurrekontuarekin.

Bertan 33 dirulaguntza lerro sartzen dira, Udaleko Arloen artean kudeatutakoak, eta guztira 2.067.500 euroko aurrekontua dute.

87 DENDA

Hiriko 87 denda 'Euskaraz barra-barra' proiektura batu dira Irunen hizkuntzaren erabilera sustatzeko.

Programan sartzeko aukera duten denda eta zerbitzuen % 75 atxiki dira programara, hau da, baldintzak betetzen dituzten 116 establezimenduetatik 87.



SALMENTA-ALOKAIRUAK - PROMOZIO BERRIAK - AHOLKULARITZA

Beraketa kalea, 17 | (+34) 943 64 64 12 | info@inmobiliariaolaizola.com
20302, Irun | www.inmobiliariaolaizola.com





BERTATIK BERTARA

TXOTX IREKIERAREKIN HASI DUTE 2026KO DENBORALDI BERRIA OLA SAGARDOTEGIAN



all4móvil
Asesoría en telefonía y comunicación

LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN

Puiana kalea 30 behea | 652 11 85 97 / 843 63 08 80 | all4movil@all4movil.com | www.all4movil.com



ZURE BIZITZA GUREKIN MARKOZTU NAHI DUZU?

MARKOGINTZA - AHOLKULARITZA - OBRA GRAFIKOA - GURE TAILERRA

KONTSERBAZIO-MATERIALAK - ZAHARBERRITZEA

Geltoki kalea, 13 | info@atrezzo.eus | 943 61 72 98 | www.atrezzo.eus

KEMEN DANTZA TALDEAK EKITALDIZ EKITALDI DANTZAN OSPATUKO DITU INAUTERIAK

Kemen dantza taldeak hainbat hitzordu antolatzen ditu Inauteri garaian Irunen. Galdaragileen konpartsan ezkontzaren osteko ospakizunean dantza egiten dute lehenik. Otsailaren 14an ohiko euskal herri inauteria egingo dute 12:00etatik aurrera hiriko erdigunean. Azkenik, otsailaren 15ean, Puska Biltzean ibiliko dira Olaberriako baserrietan barrena dantzan. Aiora Fagoaga Iza eta Naroa Zuazua Aristizabalek aurretik dituzten ekitaldien xehetasunak azaldu dituzte.

Inauteriak data garrantzitsua dira zuen taldearentzat, ezta?

Naroa: Bai, guk ez dugu ekimen bakarra antolatzen, baizik eta Inauterien bueltan hiru ekimen antolatzen ditugu eta noski, garrantzia dute guretzako, bai.

Noiz hasten zarete Inauteriak prestatzeko antolaketa lanekin?

Aiora: Taldeko batzar orokorra egiten dugu eta bertan hartzen dira Inauterietan zerikusia duten erabaki garrantzitsuenak. Batzar hau urriaren bukaera aldera egiten da eta hurrengo urtean Inauterietan landuko den gaiaren proposamena eramaten da bertara. Behin erabakia hartuta, gauzak prestatzeko lantaldea sortzen da. Herri Inauteri horrek daukan lanaren arabera, prestaketa lanak lehenago edo geroago hasten dira.

Inauterietako lehen hitzordua Galdaragileen konpartsaekin duzue. Zer egiten duzue zehazki bertan?

Naroa: Galdaragileen konpartsa ibilbidea amaituta eta San Juan plazan egiten den ezkontza antzerkiaren ostean, guk ezkontzaren ospakizuna egiten dugu. Horretarako, bertan koreografia bat dantzatzeko dugu, nahiz eta euskal dantzarekin harreman berezirik ez izan. Brahmsen 5. sinfonia den dantza hungaroaren erritmoan dantzatzeko dugu.

Euskal herri inauteria da Inauterietan zuek antolatutako bigarren ekintza, Euskal Inauteriak dantzaren bidez plazaratzeko modu bat, ezta?

Aiora: Bai, egitasmo hau abiatu zenean gu oraindik txikiak ginen, baina Irunen herri inauteriak plazaratzeko beharra ikusi zelako sortu zen, ez baitzegoen halakorik. Euskal Herriko hainbat herritako Inauteriak kalean erakusteko modu aproposa zela ikusi zen, horiek ezagutarazteko.

Jendea dantzara gonbidatzen duzue, inauteri honetan parte hartzeko ikastaroa antolatuz.

Naroa: Hori da, bai. Orokorrean inauterietako dantzak nahiko sinpleak dira, salbuespenak salbuespen eta, beraz, jendea parte hartzera animatzen dugu. Ikastaroak parte-hartze ona izaten du eta jendea dantzan ikastera animatzen da.

Aurten Altsasuko Inauteriak prestatzen ari zarete. Zer ikusi ahalko dugu?

Aiora: Ba adibidez, azken urteetan hain modan jarri diren Momotxorroak. Horiekin batera, sorginak eta beste hainbat

pertsonaia: Goldea idiekin eta itzaina, amona eta gaztea, laborari zaharren familia, mikeletea,... Haurrak momotxorro edo sorginez mozorrotzen dira eta gainontzeko pertsonaia taldeko helduen artean banatzen ditugu.

Inauteri igandean berriz Puska Biltzea egiten duzue. Nondik ibiltzen zarete horretarako?

Naroa: Igande goizean egiten dugu, aurten, otsailaren 15ean izango da. Olaberriako baserrietara joaten gara. **Aiora:** Izenak ondo azaltzen duenez, ekintzaren helburua puska biltzea da, hau da, baserri bakoitzak duena jasotzea. Inauteria ingurua uzta garaia izaten denez, sagardoa, gazta, haragia edo arrautzak ematen dizkigute gehienetan. Puska jasotzeko unean baserriaren ataria garbitzen zaie eta jasotzen dugunaren trukean guk egiten dakiguna egiten dugu, hau da, dantzatu. Fandango eta arin-arina dantzatzeko diegu eta beraiek ahal dutena ematen digute.

Zeintzuk izango dira Inauterien ostean, dantza taldearen hurrengo hitzorduak?

Aiora: Inauterien ondoren Amaia emanaldia izango dugu, urteko ekitaldi garrantzitsuenetako bat, martxoaren 28an izango dena, Amaia kultur zentroan. Maiatzaren 18tik 24ra Hondarribia Dantzan egingo dugu, Hondarribian dantzarekin loturiko aste osoko programa eskainiz.



URTE BERRIAK... OSPAKIZUN HANDIAK

Urte berria hasten da egutegiko kontu hutsa. Denboraren berritzearekin, naturaren zikloekin eta gizartearen antolaketaekin lotura zuzena duen data berezia da. Erromatar inperio guztian eta Oiasso bezalako hiri erromatar batean, egutegiak, errituek eta ospakizunek eguneroko bizitza egituratzen zuten, eta urtarrila ez zen salbuespena.

Baina urtarrila ez zen beti urtearen lehen hilabetea izan, erromaren hastapenetan martxo zen urtearen lehen hilabetea, eta horregatik daramate gaur egun ere, gaztelaniazko hilabete batzuek zenbakizko izena, alegia septiembrek 7 zenbakiari egiten dio erreferentzia, octubrek 8ari, noviembrek 9ari, eta diciembrek 10 zenbakiari, beraz, hilabete horiek urte osoaren barruan zuten kokapena erakusten digute. Hori da aditu batzuek diotena behintzat. Hala ere, K.a. 153. urtean, aldaketa garrantzitsu bat gertatu zen: kontsularen agintaldia urtarrilaren 1ean hasten erabaki zen, eta pixkanaka-pixkanaka urtearen hasiera ofiziala ere data horretan finkatu zen.

Urtarrila Jano jainkoari eskainitako hilabetea zen. Janus jainkoak bi aurpegi zituen: batak iraganari begiratzen zion, besteak etorkizunari. Ateak, pasabideak, hasierak eta amaierak zaintzen zituen, eta ezin egokiagoa zen urte berriaren babesle izateko. Haren irudia ohikoa zen txanponetan eta eraikinetako sarreretan, eta urtarrilaren lehen egunetan eskaintzak egiten zitzaizkion etorkizun ona ziurtatzeko, eta egutegi erromatarren erritmoek eragina izango zuten administrazioan, merkataritzan eta gizarte harremanetan. Urtarrilaren 1a Kalendae Ianuariae izenez ezagutzen zen. Egun horretan, ohikoa zen elkarri opariak ematea: ezta, piku lehorrak, datilak edo txanponak oparitzen ziren, eskaintza sinbolikoak ziren, urte gozo eta oparoa desiratzeko.

Etxeak ere apaintzen zituzten, eta jantzi garbi edo berriak estreinatzen ziren. Agintariek herritarrei ongietorria egiten zieten, eta foroetan jendea biltzeaz gain, erritu publikoak egiten ziren. Urtarrila, beraz, ez zen soilik denboraren hasiera; ordena sozial eta politikoaren berritzea ere bazen. Oiassoko foroan antzeko errituak egingo ziren, seguru, erromatar inperio osoan egiten ziren bezalaxe, eta egutegi bateratu bat uste baino garrantzitsuagoa zen, komunitate sentimendua sortzen baitzuen.


Hala ere, erromatar inperioak ez zuen euskal tradizioa ito, eta euskal munduan urtearen lehen hilabeteak izen ezberdinak izan ditu, bakoitza bere esanahi eta sinbolismo bereziak. Euskaraz ura, iluntasuna eta izotza agertzen dira lehendabiziko hilabetearen izenetan, naturarekin eta eguneroko bizitzarekin estu lotuak. Gaur egun erabiltzen dugun urtarrila hitzaren etimologiak arreta berezia merezi du. Adituen arabera, urte eta -arri atzizkiaren arteko loturatik etor liteke, baina badago interpretazio sinbolikoago bat ere: ur elementuarekin duen harremana.

Ura funtsezkoa da: urak bizitza ematen du, zikloak berritzen

ditu eta zaharra garbitzen du berria etor dadin. Iturriak eta erreka-bazterrek espazio sakratu modura ulertu izan dira, eta urte hasieran urarekin lotutako errituak egitea ez da arrotza euskal tradizioan. Baina beste euskal lurralde batzuetan urtarrila ilbeltza izenez ere ezagutu izan da, hilabete horren ezaugarri nagusietako baten izena hartuz: iluntasuna. Eguzki ordu gutxiko garaia da, negu betean kokatua, eta gauak luzeak dira. Beste izen bat izotzila da, hotzari eta izotzeari erreferentzia zuzena egiten diona. Nekazaritza eta abeltzaintzaren ikuspegitik, izotzak arriskuak zekartzan, baina aldi berean lurra "atseden hartzen" uzten zuen, hurrengo ziklorako prestatzeko.

Erromatar munduan ere, negua geldialdiaren eta barne antolaketa garaia zen, eta horrek euskal munduarekiko antzekotasuna erakusten du. Urtarrila, erromatar zein euskal tradizioan, trantsizioaren, berritzearen eta itxaropenaren hilabetea da. Museotik begiratuta, interesgarria da ikustea nola elementu unibertsalek —urtearen hasiera, argia eta iluntasuna, hotza eta berritzea... eta bereziki garai berriaren hasiera— baduten gurean ere esanahi berezia. Urte berriarekin egitasmo, asmo eta gogo berriak datoz, eta hain zuzen ere, aurten Oiasso museoarentzat oso urte berezia dator, ez gara soilik urte berri batean sartzen, baizik eta ospakizun handi eta oso berezi baten urtea dugu, museoaren 20. urteurrena!

Guk ere garai bateko euskaldun eta erromatarren modura ospakizun bete nahi genuke urtea, eta ilbeltzetik hasita... uztailearaino museoaren sorrera eta bizitza ospatu nahi dugu, hain zuzen ere uztailearen 20an duela 20 urte zabaldu baitzituen ateak gure museoak.



AMETSA ABESBATZA KULTUR ELKARTEAK KIMU IZENENKO GANBERA ABESBATZA BERRIA ESTREINATU DU

Ametsa Abesbatza Kultur elkarteak ukigabe mantentzen du kantuarekiko pasioa. Oraingoan, berriz, erronka berri bati heldu diote eta abesbatzari aire fresko berria emateko ganbera abesbatza bat sortu dute. Leticia Vergara da Kimu izeneko abesbatza berriaren zuzendaria eta Gabonetako Kontzertuan estreinatzea nolako izan den azaldu du.

Nola hasi duzue Ametsa Abesbatzan 2026. urtea?

Ba proiektu berri bati ekin diogu. Abesbatza berri bat sortu dugu, Ganbera abesbatza bat hain zuzen ere eta Kimu du izena. Bi arrazoik eraman gaituzte proiektua abiatzera. Alde batetik, hemen, gure etxean, Ametsa Abesbatza kultur elkartearen sortzen diren abeslariak beste aukera batzuk emateko intentzioarekin. Gehienak, Ametsa Txikitik pasa dira eta abesten jarraitzeko asmoa dute. Bestetik, beste musika mota ezberdinak lantzeko asmoarekin, elkartearen ditugun beste abesbatzekin eskaintza osatuz. Orain arte ez genuen ganbera abesbatzarik eta hori sortzea bururatu zaigu, elkartearen eskaintza zabaldu eta hiriarentzat zerbait desberdina egiteko.

Ibilbide luzeko elkarteak izan arren, jendea erakartzen jarraitzeko berritasunak eskaini behar dira beti, ezta?

Hori da. Badakigu jende heldu edo gaztearentzat ordutegien aldetik zailagoa dela horrelako konpromisoa hartzea. Beraz,



abesbatza honek modu ezberdinean funtzionatuko du: entseguak hiru edo lau astetik behin egingo dira, astero 2 edo 3 aldiz elkartzea askorentzat ezinezkoa delako. Aspaldi kantatu duten eta oraindik kantatzeko gogoz dabiltzanak berreskuratzeko asmoz erakartzeko egiten dugu hau ere.

Nolako harrera izan du egitasmo berriak?

Hasieran koroaren barnean dauden pertsona batzuekin hitz egin genuen, adibidez, Ametsa Txikiko neskatxa helduenekin, 15 eta 16 urte inguru dituztenak edo aspaldi hemen kantatu zuten Ametsako beste gazteekin. Horiek batuz taldetxo bat osatu dugu. Ilusioz hasi ginen, aurpegi ezagun askorekin, baita maila emango ote zuten beldurrez gerturatzen ziren beste batzuekin ere. Zeretik hasi ez bagara ere, alde horretatik ez da arazorik izan eta polita izan da hasiera.

Zein helburu dituzue ganbera abesbatzaren lehen ikasturterako?

Ba udaberrirako proiektu bat prestatzen ari gara. Oraindik ez dugu eguna finkatu, baina seguruenik apirila edo maiatza inguruan kontzertu bat emango dugu. Kontzertu ezberdin bat izatea nahi dugu. Askotan publikoa ordubeteko kontzertu batera erakartzea zaila izaten da, beraz iraupen ezberdina izan dezake. Bestetik, Irunen, espazio aldetik, kontzertuak egitea ez da batera erraza, Amaia antzokia hitzorduz gainezka baitago beti eta, beraz, imajinazioa martxan jarriko dugu leku berriren bat bilatzeko.

Nolako egoera bizi du egun ganbera musikak arrakastari dagokionez?

“Norbaitek kantatzeko gogoz balego, Ametsa Abesbatzara etortzeko esango nioke”

Nik esango nuke abesbatzen munduaren egoera berdinean dagoela. Desberdintasuna izan daiteke askotan Ametsa

abesbatzak orkestrarekin batera lan egiten duela. Ganbera abesbatzaren kasuan musikariak gutxiago izan daitezke eta, beraz, kontzertu baten antolaketa edo hori leku batetik bestera mugitzea errazagoa da. Errepertorio aldetik oso eguneratua dago, konpositoreen lan etengabeari esker.

“Orain arte ez genuen ganbera abesbatzarik eta hori sortzea bururatu zaigu, elkartearen eskaintza zabaldu eta hiriarentzat zerbait desberdina egiteko”

Oraindik abesbatza berri honetara batzeko aukerarik ematen duzue?

Norbait kantatzeko gogoz balego, Ametsa Abesbatzara etortzeko esango nioke. Hemen elkartearen seguru izango dugula berarentzako tartea, txiki, gazte edo helduentzat. Zehazki, Ganbera talde berri honetan bai eskatzen dugula musika apur bat ezagutzea, nahiz eta bertara batzeko ez zaien titulaziorik eskatuko. Noizbait kantatu izan dutenak edo behintzat partiturak irakurtzen dakitenak, gerturatu daitezela.

Estreinaldi berezia izan zenuten, hain zuzen ere, Gabonetako Kontzertuan. Nola moldatu zineten?

Bai. 2025eko abenduaren 28an izan zen Ametsa Kultur Elkartearen Gabonetako Kontzertuan eta bi abesti kantatu genituen. Oso polita izan zen berriz ere zirrara hori sentitzea, zerbait berria sortzen ari garela jakinda. Nik 25 urte daramatzadalako abesbatza zuzentzen eta Ametsa elkarteak 60 urte baino gehiago ditu. Beraz, ilusioz ikusi nituen abeslariak eta baita publikoa ere.

Publikoak ere asko eskertuko du abeslariaren aldetik proposamen berriak entzutea.

Hasieran, proposamena aurkeztu genuenean, harritu egin

ziren, nahiz eta gero pozik hartu zuten. Esan bezala, eskaintza berritzea ona da eta pixkanaka gauza txiki bat aldatzeak suposatzen du denborarekin gauza asko aldatzea. Elkarteak urte asko dauzkan arren, urtero aldaketa txikiak egiten ahailegintzen gara, esaterako, elkartera pertsona berriak erakartzen.

Beraz, zeregin horretan, harrobia mantentzeko gauzak eskaintzea garrantzitsua dela esango zenuke?

Abeslari txikiek erreferenteak izatea oso garrantzitsua da. Hau da, ikus dezaten beraiek egiten ari diren ekintza hori ez dela ero batzuen kontua. Pozik gaude aurten 7 edo 8 neska-mutiko batu direlako txikien abesbatzara eta guretzako hori oso albiste pozgarria da, orain arte 20 ginelako. Ametsa bezalako abesbatza batentzat taldeak zabaltea garrantzitsua da eta, noski, harrobia gure oinarria da horretarako. Kirol klubek harrobi handia izan ohi dute, gero benetan bikaina den jokalaria bat lortzeko. Gure kasuan ahal den bezainbat haur izan nahi dugu. Abesbatzaren egoitzan lekua soberan dugu eta, beraz, dena prest daukagu musika probatzeko aukera izan dezaten.

Zeintzuk izango dira zuen erronkak hasi berria den urterako?

Kimu abesbatzak udaberrian lehen aipatutako kontzertu berezia izango du. Sanmartzialetako kontzertuaren data oraintxe itxi berri dugu eta bertan abesbatza guztiak batera parte hartuko dugu. Kimurekin urrian edo azaroan beste gauza bereziren bat egin nahiko genuke. Ametsa Txikirekin kontzertu pedagogikoa izango dugu, apirilean, Irungo Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztientzat izango dena. Amaia kultur zentroan bi saio egiten ditugu horretarako. Oraindik beste hitzordu batzuk guztiz finkatu gabe ditugu, adibidez, Gabonetako kontzertua. Bestetik, inguruko abesbatzaren batekin elkartrukeren bat egiteko ere ari gara lanean eta hurrak kantatzera gonbidatuko dituen ekimen bat izango dela aurreratu dezakegu.

aurrera
KLINIKA

ZURE OSASUNA, GURE LEHENTASUNA

FISIOTERAPIA - ERREADAPTAZIOA - NUTRIZIOA - PSIKOLOGIA

Hondarribia kalea, 34W | (+34) 623 00 73 21 | info@aurreraklinika.com | www.aurreraklinika.com

TXINGUDI
IKASTOLA

AURREMATRIKULA 2026 - 2027
Otsailaren 2tik 13ra

943 899 400

012338aa@hezkuntza.eus | www.txingudikastola.hezkuntza.net

15 URTE BETEKO DITU ONDAREK BERE JARDUERAREN BITARTEZ HIRIKO KULTURA ETA ONDAREA SUSTATZEN

Irungo kultur eta aisialdi eskaintza aberasteko helburuarekin jaio zen Ondare Kultur Elkarte, eta aurten, ilusio berdinarekin, 15. urteurrena ospatuko dute. Erraldoi konpartsa xume gisa abiatuta, elkarte hiriko ondarearen eta historiaren lekuko eta sustatzaile bihurtu da, Inauterietan, Gabonetan zein bestelako jaietan parte hartuz. Honen guztiaren errepaso egin du urteurrenaren harira Iñigo Mangas Ondare elkarte lehendakariak.

Zein izan zen Ondare Kultur Elkarte sortzeko pizgarria?

Ni animazio soziokulturalaren ikasketak egiten ari nintzen eta ikasketak amaitzeko lan bezala elkarte bat sortzeko proiektua egin nuen. Irakasleak oso nota ona jarri zion proiektuari eta gomendatu zidan proiektu hori aurrera eramatea. Elkarte erraldoi konpartsaekin hasi zen. Erraldoi konpartsa tradizionalak oinarri hartuta, nik nire proiektuan beste bueltatxo bat eman nion, gazteei aisialdi aukera berriak eskaintzeko ideiarekin, Irunen gabezia hori antzeman ostean. Ideia horrekin aurrera egiteko lagun talde bat elkartu ginen eta lanean jarri ginen.

15 urteren ostean, elkartearen jarduera asko eraldatu da?

Bai, soilik erraldoiekin hasi ginen. 2011ean, hasi ginenean, oraindik ez genituen gure erraldoi propioak eta Azeptira lehen irteera egiteko garai batean Bidasoako Txarangarena zen erraldoi bikote bat erabili genuen. Bertan lortutako diruak aukera eman zigun gure erraldoi propioak sortzeko. Orduetik, gauzak asko aldatu dira eta orain ekintza askotan parte hartzen dugu, bide luzea egin dugulako honaino iristeko.

Bestelako elkartearen antzera, zuenean ere boluntario lana funtsezkoa da, ezta?

Hori da gure oinarria. Hemendik kanpo denok dugu gure lana eta, beste asko, ikasleak dira oraindik, beraz, bai, ezinbestekoa zaigu bolondresen lana.

Pixkanaka erraldoien konpartsa osatzen joan zarete, txikien artean gaur egun moda-modakoa den zerbait.

Hemen Irunen izugarriko zortea daukagu, guztira, 3 erraldoi konpartsa garelako. Beraz, hirian

“Elkartearen 15 urteurrenaren gain, aurten 10 urte beteko ditugu Sardinaren Ehorzketan parte hartzen”

erraldoi pila daukagu. Nik uste Euskal Herrian erraldoi gehien daukan hirietako bat garela. Oraindik jendeak jeneralaren eta kantineraren erraldoiak daukan konpartsa izateagatik ezagutzen gaitu, baina elkartearen jarduera haratago doa. Elkartearen 15. urteurrenaren gain, aurten 10 urte beteko ditugu Sardinaren Ehorzketan parte hartzen. Gabonetan hainbat ekitaldi egiten ditugu, adibidez, Erregeen Kabalgatan parte hartzen dugu. Erraldoien munduarekin oso loturik gauden arren, askoz ere gauza gehiago ditugu.

Urtean zehar, zein beste ekintzetan ikusiko zaituztegu?

Urteko lehen hitzordua Errege Magoen etorrera izaten da, 2012an hasi ginen bertan parte hartzen. Inauterietan ere parte hartzen hasi ginen, lehenik Hondarribiko desfilean, eta gero, Udaletxetik Irungo Inauterietan beste elkarte batek utzitako hutsunea betetzeko gonbidapena jaso genuen arte. Erraldoi konpartsaekin urtean zehar hainbat irteera egiten ditugu. Horretaz gain, beste elkarteekin kolaborazio asko eta asko ditugu.



15 urte hauetan, zein izan da elkarteak orain arte bizitako unerik bereziena?

Zaila da horri erantzutea, momentu bereziak asko izan direlako. Erraldoien konpartsa jenerala eta kantineraren irudiekin eta 4 buruhandiekin hasi genuen. 2018a elkartearen hazkunde benetan nabaritu genuen uena izan zen. Elkarteak lokala utzi zigun erraldoientzako, erraldoi berriak sortzeko aukera eman ziguna: amabitxia, trenbideetako langilea, hatxeroa, lastargina, Elgorriagako langilea eta Irugurutzetako meatzaria. Gainera, Amaia antzokian horiek aurkezteko ikuskizun polita prestatu genuen, Irungo beste elkarte batzuen laguntzarekin.

Kultura elkarte izateaz gainera, hiriko ondarearen eta historiaren lekuko ere bazarete.

Elkartearen helburuetako bat izan da hasieratik. Oso argi genuen, Irungo elkarte bat izanik, hiria bera ere kultura eta historia dela ulertzen dugulako. Hiritarron identitatea eta izaera gure historiak eta kulturak ematen digute. Elkartetik antolatzen ditugun ekimen gehienetan, haurrentzako Disney pertsonaiak kenduta, beti saiatzen gara Euskal Herriko historiara eta kulturara egokitzen. Esaterako, Gabonetan haurrentzat antolatutako ekintzetan bertako ondareari keinuak egiten saiatu gara, beti egiten dugun bezala, Irunen izena aurrean jartzeko.

Urtean zehar, 15. urteurrenarekin loturiko ekintzak antolatzeko asmoa duzue?

Orain gutxira arte topera ibili gara Gabonetako ekintzekin, baina ideia pilo bat dugu. Jada gure sare sozialetan 15 urte bete ditugula iragarri dugu eta aurreratu dugu gure asmoa erraldoien erakusketa bat izango dela. Orain dela urte dezente hasi ginen erakusketa hau prestatzen, baina ez da erraldoien erakusketa soil izango. Gure konpartsaaren erraldoi guztiak bilduko ditu, hiriko historiarekin elkartuz. Erraldoi bakoitzaren pertsonaia hartu eta horiekin lotura duten elementu ezberdinak

bildu ditugu: Chocolates Elgorriaga txokolate bilgarriak eta kutxak edo Bidasoako edo Real Unióneko kamiseta historikoak. Bestetik, hainbat ipuin sortzen ari gara eta horretarako Irungo beste eragileekin ari gara lanean. Gure ideia da aurten behintzat haurrentzako ipuin bat ateratzea. Era berean, Sardinaren Ehorzketaren 10. urteurrenarekin loturik, hor ere zerbait berezia egin nahi dugu, agian, jantzi edo mozzorro berri edo bereziren bat. Ideiak baditugu, baina aurrekontuaren arabera, gauza gehiago edo gutxiago egingo ditugu.

Zentzu horretan, elkartera batzeko edo laguntzeko modurik dago?

Aipatu dizudan bezala, orain, Gabonen ostean, ari gara gauza hauek prestatzeko topera lanean. Orain ideiak paperera jaisteko unean gaude eta Irungo Udaletxearekin bilera bat egitekoak gara. Bertan zehaztu behar dugu non egingo den erakusketa eta zein datetan. Horretaz gain, ideia gehiago ere badaukagu eta, beraz, laguntzeko prest dagoen edonor izango da ongietorria elkartearen. Gurekin harremanetan jarri daitezke gure sare sozialetara edo emailera idatzita.

Orian arte egindako guztiaz gain, ba al duzue etorkizunerako proiektu asmo berririk oraindik?

Asko. Egia da, gure erraldoi konpartsa momentu honetan 15 erraldoi dituela. Orain dela 3 urte oker ez banago, Real Unióneko erraldoia aurkeztu genuen eta erraldoi horri bikote bat jartzea falta zaigu. Seguruena urte honetan zehar lortuko dugun zerbait izango da eta horrekin jada erraldoi konpartsa guztiz itxiko genuke. Beraz, gure hurrengo ametsa konpartsa amaitu eta horrekin aurrera egitea da.

“Oso argi genuen, Irungo elkarte bat izanik, hiria bera ere kultura eta historia dela ulertzen dugulako”

Descansalia

ZURE ATSEDENA, GURE LEHENTASUNA

KONPROMISORIK GABEKO EROSOTASUNA - KONFIANTZAZKO MATERIALAK - ARRETA PERTSONALIZATUA

Luis Mariano kalea 2 | (+34) 666 35 97 08 | info@descansalia.com

jabugo

ZURE TABERNA IRUNGO ERDIGUNEAN
GOSARIAK - BAZKARIAK - AFARIAK

Zabaltza plaza 8 | (+34) 943 02 06 24

Esther Aristieta, "Santalucía Senior Challenge" erronkako parte-hartzailea:

"ADINAK BEREZ EZ DITU GURE GAITASUNAK DEFINITZEN"

Abentura, kirola eta bidaiekiko grinak Artikoraino eraman dute Esther Aristieta irundarra. Bere 68 urteak motxilan hartu eta 2025eko "Santalucía Senior Challenge" erronkako parte-hartzaileetako bat izateko aukeratu zuten. Urteak betetzeak mugarik ez dakarrela erakusteko helburua duen proiektuan parte hartu ostean, berarentzat esperientzia txundigarria izan dela azaldu du. Desafioa laburbiltzen duen dokumentala martxoaren 5ean estreinatuko da.

Nola izan zenuen erronka honen berri?

Beno, desafioak "Santalucía Senior Challenge" du izena eta nik 2025eko edizioan parte hartu nuen. Nik sare sozialetan jaso nuen lehen informazioa, non proiektuan parte hartzeko jendea eskatzen zuten: pertsona kirolariak, 65-80 urte bitartekoak. Deigarria suertatu zitzaidan abentura eta bidaia gustuko zituzten kirolariak bilatzea, bazirudielako niri zuzenean ari zitzaizkidala hizketan. Galdetegi bat bete nuen, elkarrizketarako hautatu ninduten eta Denian frogatzea bat gaitzitu behar izan nuen. Nik aurreko urtean egindako lehen edizioan eman nuen izena, Perun egon zirelako eta, batez ere, bizikletan eta mendian ibili zirelako, normalean nik gehien egiten dudana. Aurten, ordea, erronka guztiz bestelakoa izan da. Nabigazio handia egin dugu, nik inoiz egin ez dudana zerbait, eta erronka handia izan da niretzat zentzu guztietan, inoiz egin ez ditudan gauza asko egitera eraman nauelako. Erronkak mezu indartsua du atzetik: adinak berez ez ditu gure gaitasunak definitzen. Dirudienek, 65 urterekin, bizimodu sedentarioago batera egokitu behar zara, horretara bultzatzen zaituzten arau sozialak betez. Baina, zorionez, pixkanaka konturatzen ari gara gauza asko egin daitezkeela urteak bete arren. Bidaia ikusgarri honetan zerbait ikasi badut, uste baino askoz gauza gehiago egin ditzakedala izan da.

Erretiroarekin jendeak lasaitasuna eta egonkortasuna bilatzen dituen bitartean, zuk kontrakoa egitea erabaki duzu.

Bai. Izan ere, proiektuak mezu hori transmititu nahi du: zahartze aktiboa eta positiboa. Batez ere, oso garrantzitsua da estereotipo negatiboek ez harrapatzea; izan ere, gure gizartean, zahartzea, zahartzarua edo zaharra hitza bera termino gutxiesgarriak edo negatiboak dira berez. Badirudi lotsa ematen

"Bidaia ikusgarri honetan zerbait ikasi badut, uste baino askoz gauza gehiago egin ditzakedala izan da"

digula urteak betetzeak edo dauzkagun urteak esateak, baina nik uste dut proiektu hau oso ondo dagoela, emaitzarekin dokumental bat egingo baita. Horri esker,

gure buruan irudi berriak sor daitezke 65, 70, 75 edo 80 urtetik gorako pertsonengan pentsatzen dugunerako, zortzimilakoak igotzen dituztenak badirelako. Adinarekin egin daitezkeen gauza guztiak normalizatzen hasi behar dugu, bai eta gaur egun gizartean dugun kultura eta pentsamendua aldatzen ere.

Adinak ez luke inolako muga izan behar, baina ezta generoak ere, ez duzu uste?

Bai, bai, hala da oraindik. Baina, tira, alde horretatik, erronka erabat parekidea izan da, baina egia da oraindik ere uste dudala gizon baino emakume gutxiago aurkeztu garela. Izan ere, nire belaunaldian, txikitatik emakume askok ez dugu gizonak bezain bizitza aktiboa izan. Hala ere, hurrengo belaunaldian kirol gehiago egiten hasi dira eta hori luzarora nabaritutako da. Nik uste dut denborarekin erronkara aurkeztutako emakumeen eta gizonen kopurua berdinduz joango dela. Aurten, hasiera batean, hiru gizon eta bi emakume izan behar ginen, baina azkenean gizonetako batek ezin izan duenez parte hartu, hurrengo aukeratua emakumea zen; beraz, hiru emakume eta bi gizon izan gara.

Nola prestatu zinen erronka horri aurre egiteko?



Prestaketa oso dibertigarria izan zen. Lagun talde bat egin genuen hemen, eta pila bat lagundu zidan horrek, mendi igoera asko egin baitugu elkarrekin. Gainera, entrenamendu plan bat jarri ziguten, nire bizitza arruntarekin zerikusi handia zuena jarduerari dagokionez, baina tira, bai exijentzia maila handiagoarekin. Lagun batek esaten zidan entrenamenduen erdia soberan izango nuela, eta esan diezazuket ez zitzaidala ezer sobratu, erronka oso zorrotza izan baitzen. Baldintza klimatikoek dagokienez, latza izan zen, muturreko tenperaturetan ibili baikara. Hori bai, lur ikusgarriak dira. Nabigatzen zoazen bitartean, glaziarrek ikusten dituzu, bata bestearen atzetik. Han dena orain 500 urte bezala dagoela dirudi, eta gidariek behin eta berriz esaten ziguten ez ukitzeko ezer, gauzak ez aldatzeko. Animalia asko ere ikusi ditugu, morsa kolonia sinestezin bat adibidez, eta icebergen artean nabigatu dugu. Azkenean, azken erronkan, trekking bat egin genuen glaziar batean barrena eta oso gogorra izan zen, pitzadurak zirela eta, ibilitako bidean atzera joan behar izan genuelako. Gero, hondartzan lo egin genuen eta guardiak egin genituen, hartz polarraren lurraldea delako eta, ondorioz, ezin ginelako inora joan armatutako pertsonak gurekin eraman gabe.

Esperientzia honetako gauza bakar batekin geratu beharko bazenu, zein izango litzateke?

Bada, egia esatea nahi baduzu, ez dakit, paisaiei eta bizipen fisikoei dagokienez, une bakoitzak bere magia baitu. Adibidez, glaziar hartan piraguekin icebergen artean nabigatzea ikusgarria izan zen, ezin dut ahaztu. Edo hondartzan lo egitea. Betak, arrakalak, kolore urdinak, airea, bakea, guztiarekin geratzen naiz. Animaliak ikustea ere beste ikuskizun harrigarri bat izan da. Eta elkarbizitza eta itsasontziko nabigazioa hain izan dira dibertigarriak. Esperientzia bikaina izan da.

Non ikusi ahal izango da esperientzia horren emaitza?

Bada, dokumentala martxoaren 5ean estreinatuko da Madrilen eta gero Amazonen Prime plataformara igoko da. TREX

Exploring enpresak egina da eta haiena da ere, jada Primen ikusgai dagoen Pelayo izeneko beste erronka: minbizia izan duten emakumeekin egiten dena.

"Nik uste dut jende askori balioko diola funtsean egin nahi duten horrekin konektatzeko, nahiz eta oraindik oso argi ez izan"

Nolako izan zen Irunera itzultzea esperientzia hori bizi ondoren?

Egia esaten badizut, asko kostatu zait. Ez dakit, oso esperientzia indartsua izan da niretzat. Orduan, beno, ez da erraza izan hona itzultzea. Hemen ere gauzak gertatu dira bitartean.

Horrelako esperientziak gizartean erreferente berriak, hurbilak eta errealak sortzearen garrantzia islatzen dute.

Nik uste dut jende gehienak bizitza aktiboa duela eta dieta orekatua daramala. Garrantzitsua da hori betidanik egin izana, 65 urterekin hasteak ez baitu balio. Nik ez dut kirolerako gaitasun berezirik, baina bizitza osoan gustatu zait kirola egitea. Egia esan, neure buruari proposatzen dizkiodan gauzak egin ditzakedala uste dut, eta horrek, neurri batean, nire alde egiten du. Glaziar batera kranpoiekin joatea proposatzen badidate, baietz esango dut, eta gero ikusiko dut nola egiten dudana. Horregatik, oso garrantzitsua da dokumentalaren lana, irudi berriak sortzen laguntzen baitu, zu bizitzan ez zaitezten soilik gizartera eta haren estereotipoetara mugatu. Nik uste dut jende askori balioko diola funtsean egin nahi duten horrekin konektatzeko, nahiz eta oraindik oso argi ez izan.

Erronka artiko hori gaitzitu ondoren, baduzu proiektu berririk buruan?

Beno, badakizue beti daudela gauzak zuri gustatuko litzaizukeen guztia egitea eragozten dizutenak, baina tira, oraindik ez daukat buruan ezer pentsatuta. Jakina, planak, proiektuak eta gauzak egin nahi ditut. Baina beno, oraingoz hilaren 5ean dokumentala estreinatuko da eta gero ikusiko dugu.

LAVANDERIA

Garbi goxo

VENDING - LAVANDERIAS

ZURE KONPONBIDE INTEGRALA

GARBI GOXON, ZURE BIZITZA ERRAZAGO EGITEN DUGU

GARBITEGIA - MASKOTA GARBITEGIA - VENDING 24H

EGUNERO IREKITA 8:00ETATIK 22:00ETARA

Puiana Kalea 18 | 621 15 09 79 | www.garbigoxo.com | info@garbigoxo.com

IRENE LAVÍN

MICROPIGMENTACIÓN

MIKROPIGMENTAZIO ESTETIKO ETA PARAMEDIKOA GIZON ETA EMAKUMEETAN

Jostun Kalea 9, Irun | (+34) 682 34 85 78

ANTXETA IRRATIA

Antxeta Irratia:

MENDE LAURDENA BETE DU ANTXETA IRRATIAK MUGAREN BI ALDEETAKO ERREALITATEA EUSKARAZ KONTATZEN

Mende laurdena bete du Antxeta Irratiak mugaren bi aldeetako errealitatea euskaraz kontatzen. Urteurrena baliatuz, begirada atzera bota, proiektuaren sorreran arakatu eta berriki FM hutsetik mundu multimediara izandako jauzia eta irratia komunitario gisa dituzten erronkak, adimen artifiziala tarteko, azaltzen dira. Urteurren berezia otsailaren 26an Ficobako auditorioan ospatuko dute, irratia inguruan dabiltzan eta ibili diren guztiak ekitaldira gonbidatu. Agus Hernan, Antxeta Irratiko lehendakaria dena, eta Aitziber Zapirain, Antxeta Irratiko koordinatzailea, ariketa horretan murgildu dira Bidasoa ibaiaren bazterreko biztanleen eskura informazioa jartzen duen komunikabidearen eguneroko jarduna nolakoa den azaltzeko.



ANTXETA IRRATIA

Antxeta Irratia 2001ean jaio zen, Behe Bidasoa euskaraz uhin bidez komunikatzeko asmoz. Hedabide komunitarioa da eta bere jarduna jendarte feminista, inklusibo eta euskalduna eraikitza bideratzen du. 25 urteko ibilbidearen ostean, mugaren bi aldeak euskaraz batzen dituen proiektu komunikatibo erreferentean bilakatu da. Antxeta Irratiak egoitza nagusia Hendaian duen arren, orain gutxi Irungo Eliza karrika estudio digital berria estreinatu dute.

Gaur egun, Agus Hernan elkarteko lehendakaria izanik, Aimar Lopezek, Lizar Elexpuruk, Paola Oscozek, Ekhiñe Zapiainek, Koldo Nausiak, Aitor Errazkinek, Ines Fernandezek eta Aitziber Zapirainek osatzen dute Antxeta Irratiko lantaldea.

Nola gogoratzen dituzue Antxeta Irratiaren hasierako urteak?

Agus: Galdera hori historia egiteko eta dinosaurio batentzako ariketa interesgarria da. Garai horretan nik Gure Irratian lan egiten nuen, bertako zuzendaria nintzen eta. Betidanik Behe Bidasoarekiko kezka nuen buruan, bertako euskararen egoerarengatik. Frantziako irrati elkarteentzako sistema ikusita proiektu iraunkor bat martxan jartzeko aukera ikusi genuen, hegoaldean oraindik ez zegoelako batere garatua horrelako sistema garantista bat; orain bai, ordea. Horrela, proiektua duela 25 urte abiatu genuen Hendaia erdialdean, “Boulevard du Général de Gaulle” karrikan, nahiz eta gaur egun ez gauden bertan. Bi urte geroago krisi sakon bat bizi izan genuen diru arazoengatik, horrelako proiektuak ekonomikoki oso ahulak direlako. Egoera hori gainditu genuen eta 25 urte geroago hemen jarraitzen dugu, 8 pertsonen osatutako lantaldearekin, egunero 24 orduz eta gaur egun jada multimedia proiektu batekin.

Sorrerako eta gaur egungo testuinguruaren artean alde handia egongo da, ezta?

Aitziber: 25 urteko ibilbidearen ostean, gaur egungo Antxetak ez du zerikusirik iraganeko harekin. Garai batean FM bidezko irrati soila zen, garai hartan irrati guztiak horrelakoak zirelako. Azken 5 urteetan, Euskal Herriko komunikabide askok euskarri ezberdinetan aritzeko jautzia eman dugu; guztiok ez, ez baitago denon eskura. Beraz, hasieratik gaudenok edo azken 5 urteetan hasi diren lankideek bi errealitate oso ezberdin ezagutu ditugu. **Agus:** Nik ere testuinguru soziolinguistikoa gehituko nuke. Duela 25 urte Hendaia, Irun eta Hondarribiko kontestu soziolinguistikoa bestelakoa zen. Egun, arazo berriak daude, euskararen erabilera orokorra eta gaztetxoaren erabilera. Dena den, egia da egungo testuinguru erabilera mesedegarriagoa dela. Bestetik, testuinguru politikoa ere bada aipatzekoa, orduan Bidasoa-Txingudi Mugaz-gaundiko partzuergoa sortzen hasi zelako eta ondorioz, gaur egun Behe Bidasoko lurraldea kohesionatua dago eta lankidetzeta gehiago daude. Antxeta irratiaren, bateratze eta hizkuntzaren garapen horretan, ekarpen handia egin dugu.

Hain zuzen ere, horrelako proiektu bat zeretik abiatzeak zailtasun ugari izango zituen.

Agus: Abentura bat izan zen, hori egia da. Egia da, Gure Irratiaren esperientzia eta babesa gurela eta hasieran oso lagungarria izan zen guretzat Hendaian frekuentzia lortzeko. Gero, Irunen, Beran edo Lesakan emisioak egin ahal izateko frekuentzia lortzeko saltoa eman behar izan genuen, mugikortasun aldetik, eskualde hauen artean

“Antxeta irratiaren, bateratze eta hizkuntzaren garapen horretan, ekarpen handia egin dugu”

Agus Hernan, Antxeta Irratiko lehendakaria

lagungarria izan zen guretzat Hendaian frekuentzia lortzeko. Gero, Irunen, Beran edo Lesakan emisioak egin ahal izateko frekuentzia lortzeko saltoa eman behar izan genuen, mugikortasun aldetik, eskualde hauen artean



bizi eta lan egiten duen jende asko dagoelako. Konplexua izan da eta tartean aldaketak izan diren arren, nabarmentzekoa da lanera sartu zen bigarren ekipotik, hau da, duela 20 urte lanean hasitakoetatik, oraindik bertan jarraitzen dutela Koldo Nausia, Aitziber Zapirain eta Aitor Errazkinek. Horrek argi erakusten du ekipoa iraunkortzeko gai izan ginela. Horrelako proiektu ahuletan ohikoa izaten da jendea etengabe aldatzea. Elementu esanguratsua da hori niretzat, horien ostean ere bai baitago erreleboa.

Antxetaren bereizgarrietako bat irrati komunitarioa izatea da, ezta?

Agus: Jendeak agian buruan izango du duela 30 urte inguruko irrati libreen kontzeptua, 1968ko maiatzaren inguruan Frantzian sortutakoa. Hau da, balio aurrerakoietan oinarrituriko proiektu bezala sortu ginen.

Aitziber: Antxetak 10 urte bete zituenean, konturatu ginen gauza asko modu inkontzientean egiten zirela, paperean jarri gabe norekin, zegotik edo zertarako. Orduan ohartu ginen bagenuela komunitate trinkotu bat. Orain 8 langile garen arren, azken 5 urteetako goraldea izan da hau, lehenago beti 3 edo 4 baikin soilik. Ondorioz, guretzat kolaboratzaileak oinarritzekoak izan dira beti, haiek gabe beste edozein irrati pribatu bezalakoak izango ginen, oinarrian elkarte bat garen arren. Komunitatea irrati langile kopurua baina handiagoa izateko beharra ikusi dugu beti eta, 25 urte eta gero, komunitate hori trinkotzea da gure erronka. Denbora honetan komunitatearen beharrak eta erronkak aldatu egin dira.

“Abentura bat izan zen, hori egia da”

Agus Hernan, Antxeta Irratiko lehendakaria

erronka. Denbora honetan komunitatearen beharrak eta erronkak aldatu egin dira.

Gure komunitatea 4 edo

5 hankek definitzen dute. Lehen, euskararen normalizazio prozesuan eragile aktiboak izatea. Gaur egun ohitu gara, nahiz eta guztiz ez bete, Bidasoaldearen alde honetan euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatuak izatera, iparraldean oraindik egoera ez ofizial batean jarraitzen duen bitartean. Antxeta hasi zenean ez zegoen euskara teknikaririk ere eta prentsa ohar guztiak gaztelera hutsean jasotzen ziren. Ordezkaritza instituzionalek ere ia ez zuten euskaraz hitz egiten eta egitekotan gurekin aparte egiten zuten, euskal komunikabideok beti itxaron egin behar izaten genuelarik. Beraz, euskal hiztunen komunitatea Antxetaren parte da. Duela zenbait urtetik irrati komunitario feminista bezala izendatu genuen proiektua, komunikazio eredu feminista ez bada, bazterrean uzten dituelako hainbat giza talde edo pertsona. Horrez gainera, 15 bat urte daramatzagu memoria historikoaren berreskurapenean lanean, bai ikuspuntu lokaletik zein Euskal Herria nazio bezala hartuta. Gainontzean, euskara hutsean lan egin arren, gure entzulea gizarte eredu inklusibo baterantz bideratzen saiatzen gara. Mugaz gaundiko testuinguru batean bizi garelako bertan eta gainera, ez dira garai errazak, giza eskubideak egunero urratzen direlako, beraz, badugu zer esan horien alde egiten dugunok. Azkenik, eskualdea saretzea da gure beste helburuetako bat eta bidasotarrak gure bailaran arrotz ez sentitzea lortu dugula uste dut.

25 urte hauetan, zeintzuk izan dira irratiaren ibilbidea markatu duten mugarri nagusiak?

“25 urteko ibilbidearen ostean, gaur egungo Antxetak ez du zerikusirik iraganeko harekin”

Aitziber Zapirain, Antxeta Irratiko koordinatzailea



Aral Quiromasaje
MASAJE ON BAT MEREZI DUZU
www.aralquiromasaje.com
Larretxipi Kalea 17 | (+34) 643 26 92 76

BADOA
BIZIKLETA BIZITZA DA
BIZIKLETA BIDEZKO BANAKETA · ALOKAIURUA · DENDA
REPARTO EN BICI · ALQUILER · TIENDA
+34 943 099 647 Santiago, 49, Irun
+34 722 653 643
badoa@badoa.eus | badoa.eus | @badoa_bb

lassai
Psikologa
ZERK KEZKATZEN ZAITU?
www.lassaipsiologia.com
San Francisco Kalea 46 (10. lok) | 632 40 21 88

PÍKARO
RESTOBAR

ETORRI ETA GOZATU ZURE LAGUN ETA SENIDEENTZAKO GIRO ATSEGINAZ
KARTA · EGUNEKO MENUA · PLATER BEREZIAK · PAELLAK · PINTXOAK
ERRAZIOAK · OGITARTEKOAK · HANBURGESAK · HAURREN MENUA
Anzarán plaza, 14, Irun, Gipuzkoa | 943 664 897 / 684 802 482 | www.pikarorestobar.com

Agus: Horrelakoetan pentsatzerakoan, elementu negatiboak etorri ohi zaizkigu burura. Adibidez, Aste Santuko igande batean lokalean uholdea jasan genueneko. Sekulako kolpea izan zen guretzat, noski, Aitziberren lehen lanegunean. Baina hori ez da garrantzitsuen.

Gertakaririk garrantzitsuenak aipatu beharko banitu, hauek aipatuko nituzke: lokalaren inaugurazioa eta hasiera, gaur egungo ekipo berria, lanean sartu diren azken neskak, eta gainera, azpimarratzekoa dena, gehienak neskak eta Lesaka eta Beratik etorriak direla, eta azkenik, azken 5 urteetan multimediara emandako saltoa. Orain Antxeta Media bezala definitu gaitezke: webgunearekin, bideogintza edo podcastekin, sare sozialetan eguneroko edukia, estudio berriak Irunen eta Hendaian edo digitalizazioa. Orain bi estudio ditugu: bata, Hendaiaiko Sokoako zonalde industrialean dagoen estudio zentrala eta, bestea, Irungo zentroan dugun estudio digital berria.

Testuinguruarekin batera, lan egiteko modua nabarmen aldatu da kazetarientzat ere, ezta?

Aitziber: Bereziki gure kasuan, azken 5 urteetan eraldatu da nagusiki. Nik beti entzun diet irradian, Agus eta lankideei, aurrerapen teknologikoak ez direla gure etsaia; horiei zukua ateratzeko modua aurkitu besterik ez dugu egin behar. Gu garai batean mikrofonoa jartzeaz bakarrik arduratu behar ginen, orain ordea, audioaren grabaketaz gain, argazkia eta bideoa ere sortu behar ditugu. Lantaldea ostegunero biltzen da datorren astera begirako jarduna identifikatzeko; baina ez guztia, egun batetik bestera aldatzen direlako gauzak. Bertan erabakitzen dugu zer landu nahi dugun, nola eta zein iturriekin. Gure eskualdean beti izan da komunikabide lokal ugari, baina gu izan ginen irrateria euskaraz egiten lehenak. Hasieran ekitaldi guztietara joateko beharra ikusten genuen, hor ginela erakutsi behar genuelako, besteek gazteleraz egiten zuten hori euskaraz egin zitekeela erakusteko. Bestetik, euskal komunitateari erakutsi behar izan genion, informazioa euskaraz ere jaso zezakeela, ohitura aldaketa handia baitago horren atzean. Gure eraldaketa bereziki nabarmena izan da azken 5 urteetan.

Agus: Lan fluxuaren antolaketan izandako aldaketa oso adierazgarria da. Lehen goizaren hasieran egunean zehar landu beharreko gaiak identifikatzen genituen, 12:00etako informatiboan pentsatuz. Orain informatibo hori beste tresna bat bezala ikusten dugu soilik, lehentasuna informazioa sare sozialetan lehenbailehen argitaratzea baita. Askotan, guk argitaratutako informazio bat albiste nazional bihurtu dela ikusi dugu, mugaren inguruko gertakariekin loturik batez ere. Orokorrean, eskualdeko panorama komunikatiboa aldatu dela esango nuke, baina ez hainbeste, agian. Duela 25 urte ikusten nituen komunikabideek hor jarraitzen dute, nahiz eta

“Nire hitza itxaropena litzateke; mundu aldakor eta konplexu batean bizi gara, baina baita orain dela 25 urte ere”

Agus Hernan, Antxeta Irratiko lehendakaria

“Hasieran ekitaldi guztietara joateko beharra ikusten genuen, hor ginela erakutsi behar genuelako, besteek gazteleraz egiten zuten hori euskaraz egin zitekeela erakusteko”

Aitziber Zapirain, Antxeta Irratiko koordinatzailea

ezta existitzen ginenik ere.

Teknologien bilakaerak etorkizunerako erronka berriak planteatuko dizkizue, noski.

Aitziber: Bai. Adimen artifizialaren gaiak bete-betean harrapatzen gaitu, gaur telefono mugikor bat duen edonor kazetaria izan daitekeela dirudielako. Aro honetan, komunikabideak informazio iturri fidagarri gisa identifikatzea funtsezkoa izango da, egiazkotasuna bermatzen duen tresna bezala. Guk, kazetari bezala, informazio bilaketan edo informazioaren eraikuntzan adimen artifizialaren erabilera txertatu behar dugu. Beste aldera begiratzuz gero, olatuak harrapatuko gaituelako. Gure jarduna euskaraz izanda eta gure txikitetasunetik, askotan zaila zaigu horrelako erronka handiei eustea. Zorionez, Euskal Herrian badugu Berria bezalako zerbait, guretzat aitzindaria dena, ekintza horiek maila lokalera eramateko orduan eredu bikaina dena. Beraz, orain gure erronka handienetako bat da adimen artifiziala eta gu hartzailarentzat informazio iturri fidagarria izatea.

25 urte hauek ospatzeko ekitaldi berezirik antolatuko duzue?

Aitziber: Antxetan 4 urte inguru daramatzagu urtean zehar ekitaldi ezberdinak antolatzen beste eragileekin batera. Erritmo horretan konturatzen gara jendea nekez iristen dela nahiko lukeen konpromiso guztietara, lana, etxea edo kontziliazioa dela eta. 10. eta 15. urteurrenak guretzat oso trinkoak eta intentsuak izan ziren, urte osoan zehar ekintzak antolatzeko apustua egin genuelako. 20. urteurrenak pandemia erdian eta Hendaiaiko estudio berrien lekualdaketan harrapatu gintuen. Beraz, oraingo honetarako pentsatzen ari gara festa bakarra antolatzea, etxeko kutsuarekin. Ficoban izango da, otsailaren 26an, arratsaldeko 19:00etan. Gure inguruan ari direnei, kolaboratzaileei eta instituzioei bertaratzeko gonbidapena luzatuko diegu. Hain zuzen ere, 25 urte hauetan antxetaren bueltan 25 urte hauetan ibili dena gonbidatua dago ekitaldixora, ez baitugu inor kanpoan utzi nahi, hau da, irradian kolaboratzeaz gain, irrateria entzun edo maite dutenak ere.

Azkenik, zein mezu bidaliko zeniekete zuen entzuleei urteurren honen harira?

Agus: Gaur egun Antxeta Irratia bere historiako 25 urteetako unerik onenean dago, bai bere taldearen sendotasunagatik, multimedia proiektuan duen ilusioagatik, bai Irunen eta Euskal Herrian duen erreferentziagatik. Nire hitza itxaropena litzateke; mundu aldakor eta konplexu batean bizi gara, baina baita orain dela 25 urte ere. Nire ustez, itxaropena dago bai euskararentzat, bai Euskal Herriaren eraikuntzan ere, bertan Behe Bidasoa eskualdeak rol garrantzitsu bat jokatzen baitu. Bestetik, beldurrik ez izateko esango nieke, datozen aldaketa guztien aurrean jarrera prebentiboa hartu ohi dugulako. Antxetako taldean, ordea, kontrakoa hartu dugu eta aldaketa guzti horiei aprobetxatzeko jarreraz helduko diegulako, aurretik erronka garrantzitsuak ditugula badakigu eta. Gazteengana iristea lortu behar dugu, hizkuntza ohiturak aldatu eta euskara transmititzeko, eta irrati komunitario gisa ditugun balioak, gaur egun gure herrian sustraituak dauden balioak, zabaltzeko.

“Orain gure erronka handienetako bat da adimen artifiziala eta gu hartzailarentzat informazio iturri fidagarria izatea”

Aitziber Zapirain, Antxeta Irratiko koordinatzailea



Ryan Valoria, *The Wellness Corner*:

“GURE BEREIZGARRI HANDIENA HORI DA, ESKAINTZEN DITUGUN ZERBITZUEN PERTSONALIZAZIOA”

Ongizateak txoko berri bat du Irunen. “The Wellness Corner” da bere izena eta Vega de Eguzkitza kaleko 29. zenbakian dago. Bertatik Ryan Valoriak bere zerbitzuak eskaintzen ditu, bizitza berri bati ekiteko abiapuntua izango direnak. Espazio honetan pertsonen osasuna, energia eta ongizatea hobetzeko lan egiten du, ikuspegi holistikoa eta pertsonalizatu batetik. Ryan Valoria prest dago gorputza, burua eta energia uztartuz, bizimodu kontzienteago, orekatuago eta iraunkoragoetarako bidea erakusteko.

Ezagutzen ez zaituztenentzat, zer da *Nineulife*?

Duela bi urte sortu nuen marka bat da, entrenamendu pertsonalerako, elikadura osagaiak eta naturopatia zerbitzuak elkartzen dituena. Hortik aurrera, pixkanaka, prestatzen jarraitu dut. Emozioen kudeaketari buruzko prestakuntza ere jaso dut, eta orain, azken urte honetan, zitoterapia landu dut, Txinako medikuntza tradizionalan eta biometatestan edo test metabolikoetan oinarrituta, bezeroen bizitza nola hobetu zehazteko.

Beraz, zerbitzu guztiz osoa eskaintzen duzu.

Bai, hilabeteak neramatzan pentsatzen lokal bat behar nuela, espazio propio bat izan eta dena batera eskaini ahal izateko. Eta azkenean, beno, dena oso azkar joan da. Dena muntatu dut abenduan zehar eta dena prest daukagu jada. Vega de Eguzkitza kaleko 29. zenbakian gaude eta ilusioz gainezka.

Zure zerbitzuak eskaintzeko espazio egokitu bat izatea oso lagungarria izango da, ezta?

Bai, bai. Azkenean, entrenamenduak planifikatzeaz gain, kontsulten zati garrantzitsuenean lan egiteko aukera ematen digu, bezeroei biometatesten bidez, nutrizioaren edo gaixotasun edo larruzaleko afekzioaren bat dutenean, haien beharrei erantzuteko. Alde batetik, lokal honek entrenamendu pertsonalizatuak, errehabilitazioa edo lesioen errehabilitazioa egiteko gela egokia du. Bestalde, bulego txiki bat ere badugu kontsultak egiteko. Horri esker, bi gauza egin ditzakegu aldi berean.

Zerbitzu horien abantailarik handienetako bat arreta guztiz pertsonalizatua izatea da.

Noski, gure bereizgarri handiena hori da, eskaintzen ditugun zerbitzuen pertsonalizazioa. Gimnasio handiagoetan edo enpresa handiagoetan ez bezala, hemen dena oso pertsonalizatuta dago. Hona jendea bere background-arekin etortzen da, hau da, bere partearekin, bere eragozpenekin, gaixotasunekin edo hobetu nahi duenarekin; laburbilduz, bere helburuekin. Horregatik, gure arreta erabat pertsonalizatua da eta hori da gure indargunea.

“Vega de Eguzkitza kaleko 29. zenbakian gaude eta ilusioz gainezka”

Zuen zerbitzuen barruan, 50 urtetik gorako pertsonentzako



entrenamendu pertsonalizatuak eskaintzen dituzue.

Konturatu ginen, azkenean, gazteak beren kontura ibiltzeko moldatzen direla, baina jende askok, 40 edo 50 urtetik aurrerakoek, oraindik ez dakitela entrenatzen, batez ere indarra lantzen edo entrenamendu funtzionalak egiten. Askok ez dute inoiz entrenatu eta espazio honetan entrenamenduetan inimizazio pertsonalizatua eta progresioa izateko aukera emango diegu. Orduan, beno, baditugu bezero batzuk zerbitzu horri buruz galdetu digutenak eta animatzen ari direnak.

Jarduera fisikoaz gain, oso garrantzitsua da nutrizioaren alderdi hori zaintzea.

Ba bai, nutrizioaren alderdia entrenamendua bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa dela esango nuke. Entrenamendua, jakina, oso garrantzitsua da, onura asko lortzen ditugulako, baina nutrizioaren alderdia ere funtsezkoa da. Gaizki elikatzen den norbaitek ezin ditu lortu hobetu nahi dituen helburuak.

Elkarrizketaren hasieran esan duzun bezala, test metabolikoak ere badituzue. Zertarako balio dute test horiek?

Horretarako laborategi batzuekin lan egiten dugu. Test metabolikoen bidez, ilearen lagin bat hartzen da, ilean informazio asko gordetzen baita. Lagin horrekin, sei hilabete lehenagoko informazioa azter daiteke, eta beste test batzuekin ez bezala (adibidez, gorozkiarena edo odolarena, uanean unekoak baitira), honek askoz ere informazio zaharragoa gordetzen du. Lehen kontsultan gehien gomendatzen dudana testa hesteetako disbiosia da; izan ere, ondo dakizunez, mikrobiotaren tratamendua funtsezkoa da afekzio asko tratatzeko eta errendimendua eta energia hobetzeko. Eta, gainera, test horrek ere pixka bat zehaztuko dizu nola elikatzen jarraitu behar duzun.

Horretarako, naturopatia edo zitoterapiaren inguruan lan egiten duzu, nahiz eta askorentzat oraindik hitz horiek ezezagunak izan.

Bai, egia esan, zitoterapia, azken hilabeteetan aurkitu dudana, zoragarria da, sendabelarrekin lan egiten baitu. Dena naturala bada ere, ondorio farmakologikoak ditu. Bai, egia da ez dela dena sendatzen dizun pastilla, edo eragozpenak kentzen dizkizuna une batean edo baita egun gutxitan ere. Emaitzak ikusteko denbora apur bat gehiago behar da eta epe ertain edo luzerako

helburuak ezarri behar dituzu, sei hilabete urtebeterakoak. Baina egia da benetan emaitza oso onak ematen dituztela modu naturalean afekzio askotarako.

“Entrenamendua, jakina, oso garrantzitsua da, onura asko lortzen ditugulako, baina nutrizioaren alderdia ere funtsezkoa da”

Beraz, zure zerbitzu guztien helburua zure bezeroen ongizatea bilatzea da, horretarako jarraibideak emanez, ezta?

Hori da. Hau ongizategune bat da. Horretarako sortu zen, pertsonen energia eta ongizate handiagoa eta bizimodu osasuntsuagoa lortzeko lekua izan dezaten.

Bezero berriei begira, lehen balorazio-kontsulta doakoa dela aipatu behar da.

Bai, noski. Lokala irekitzean bururatu zitzaigun lehenengo gauza jendea erakartzen saiatzea dela, eta horregatik lehen balorazio kontsulta doakoa izatea erabaki genuen. Kontsulta horri esker, pazienteak hobetu behar duenaren erradiografia egin dezakegu, eta, hortik aurrera, lanean hasi.

Espazio berriaz gain, etxeko zerbitzua eskaintzen jarraitzen duzue?

Bai, izan ere, online zerbitzuarekin hasi ginen, eta gero forma hartzen joan ginen. Baina uste dut oso zerbitzu interesgarriak direla agian etxean dagoen eta zailtasunak dituen jendearentzat, adibidez, mugikortasun arazoak edo beste edonolako arazoak dituztenentzat. Horregatik, zure etxera hurbiltzeko aukera eskaintzen dizugu, eta ez dugu horretarako arazorik kilometro batzuk egiteko.

Orain kalean zaudetela, nabaritu al duzue zuen zerbitzuekiko interesa handitu egin dela?

Egun batzuk daramatzagu eta jendea agertzen ari dela ikusten dugu, lokala berritasunagatik nola den begiratzen dute eta nik uste dut pixkanaka itxura hartuko diogula.

Epe ertain eta luzera, zeintzuk dira zuen helburuak?

Ba nik lehenengo sei hilabeteak markatu ditut bezeroen arabera helburuak nolakoak diren ikusteko. Eta gero, urtebeteko tartea ematea pentsatu dut, balorazio bat egiteko eta zer hobetu dezakegun eta non zentratu gaitezkeen ikusteko.

Zugandik gertu

Aurrematrikulazioa Otsailaren 2tik 13ra arte

www.sanvicenteirun.com

Hondarribia Kalea, 23 - Irun
943 61 99 90

@sanvicenteirun



Eskaneatu eta erreserbatu zure bisita pertsonalizatua.



Autobusik gabe. Etorri oinez eskolara.



2 urtetik DBH 4. mailara arte.




Goiz Txokoa eta Jangela.



Giro familiarra eta tratu hurbila.



Gurutzegrama: Datu historikoak



Horizontal

- 1- 1936an eraturtako lehen euskal gobernuko lehendakaria.
- 5- Euskal lurralde historikoen erakunde politiko tradizionalak.
- 6- Euskal itsasgizon eta esploratzaile ospetsua

Bertikal

- 2- Euskal hizkuntzaren lehen liburu inprimatua idatzi zuen egilea.
- 3- Nafarroako errege ospetsua, Antso III.a izenez ezaguna.
- 4- Euskal baleazaleek erabilitako itsas eremua.

6 Hitz: Artearen korrontek

U	F	C	J	H	F	Z	V	I	S	T	A	L	H
D	S	Y	A	L	I	T	Z	N	J	Q	S	S	K
A	X	T	W	C	I	A	B	P	K	S	E	X	U
D	N	W	O	E	H	T	C	R	C	U	R	H	B
A	E	U	Q	U	X	P	F	E	D	R	R	Q	I
I	P	Q	V	F	X	N	C	S	O	R	E	T	S
S	R	O	B	T	H	D	G	I	R	E	A	S	M
M	R	Q	P	F	D	A	B	O	R	A	L	G	O
O	P	S	M	A	M	B	H	N	N	L	I	Y	A
A	F	K	X	E	R	H	C	I	V	I	S	I	H
D	O	O	Q	I	P	T	W	S	C	S	M	V	I
R	P	W	O	S	P	J	R	M	T	M	O	W	S
M	O	Y	X	N	A	R	Y	O	D	O	A	M	I
E	M	T	I	J	G	E	X	A	F	A	Z	Y	I

- Errealismoa
- Kubismoa
- Inpresionismoa
- Surrealismoa
- Popart
- Dadaismoa



Badator Herriartekoa!

Doinua: Agur maiteno, gudara noian
Egilea: Aitor Errazkin Vicente

Bi mila eta hamazazpian
joan ginen lehen aldiz
gaur bederatzirte ondolik
izena eman dugu berriz...

Martxa arindu behar, ordea
gainean daukagu eta
Gipuzkoako Herriarteko
Taldekako Txapelketa!

Talde-izenak aurreko berak:
"Txingudi bat", "Txingudi bi"
originalak ez dira baina
bai oso baten erdi bi.

Saririk bada talde-izenen
kontu hori gora-behera
guri ematen izango dute
guk hartutako lan bera.

Bi talde, beraz, beren epaile
gai-jartzaile, arduradun
kargu adina parte hartzaile
ez dakit nik badaukagun...

Baina badugu estrategia
erne ibili bestek
atzegoardia zaharrak gara
lehen ilaran gazteak!

Desira bakar bat daramagu
(norberak bereak ditu):
antolakuntza-lanak ez gaitzan
guda zelaian zauritu.

Eta bidean etsairik gabe
lagunik eginez gero,
ezin esango dugu, aizue,
ez genuenik espero...

Eskualdean pare bat saio
Kabigorri, ahal badugu
lubaki horrek lehendik ere
babestu izan gaitu gu!

Nahi duzuenok egingo dugu
nahiz irabazi, nahiz galdu
saiotara bildu, aditu
eta elkarrekin afaldu.

Estrategia horrekin goaz
zer iruditzen zaizue?
Zatozte gure ondoan ongi
pasatu nahi baduzue!

Data zehatzik ez da oraindik
baina horra azken bala:
postaz helduko zaizkizue guk
haien berri izan ahala.



Erantzunak webgunean:
www.irunero.eus/denborapasak/



KIROLAK

BEÑAT LIZASOK PALA EGOKITUAREN BIDEZ GOZATZEN DU KIROLAZ ETA BIZITZAZ

Beñat Lizaso, jaiotzez oiartzuarra izan arren, Irunen bizi da egun. 2025eko azaroan Euskal Pilotako Nazioen Ligako finalera iritsi zen pala egokituko modalitatean. Euskal Selektzioaren izenean parte hartu zuen txapelketan eta Frantziaren kontra jokatu ostean, txapelburorde bilakatu zen. Kirolariak pala egokituan lehiatzea nolakoa den azaldu du, bere kirol ibilbidearen errepasoa egitearekin batera.

Nola joan da azken txapelketa?

Ba Frantzia jokatu berri den txapelketa batetik nator, nahiko berezia dena, bi modalitate uztartzen baititu: trinketea eta frontoia. Oraingo honetan frontoia tokatu zaigu eta handik nator. Klub bezala 30-13 galdu genuen larunbatean, baina sentsazio onekin, besoko lesioaren ondorioz 2 urte txar pasa ditut eta. Beste partiduan, berriz, inoiz egin ez nuen zerbait egin nuen: bikotez aldatu Frantzia eta Euskaldunen artean, bikoteak desorekatuak zeudela zirudielako eta egia esan, oso ondo ibili ginen horrela. Orain Nizarako prestatzen ari naiz.

Finalak aipatuta, azaroan Nazioen Ligako Finala jokatu zenuen Bilbon. Txapelketa handia da hori, ezta?

Guk 2011n uste genuen hau ez zela inora iritsiko 4 katu garelako eta begia, azkenean selektzioarekin jokatzeko aukera iritsi zaigu. Munduko Txapelketa jokatu nuen 2012an Frantzia Espainiako Selektzioarekin gonbidatu bezala eta hori ez zen inora iritsi. Baina Euskadiko Selektzioarekin Nazioarteko txapelketara joan naiz, presidentea ezagutzeko aukera izan dut eta familia bat sortu dugu denon artean, oso polita da.

Kanporaketak jokatu ostean, Frantziaren kontrako finala jokatu eta txapelburorde izan zinen.

Frantzia zen txapelketa irabazteko favoritoa eta guk bigarren sorsesa bat emateko aukerak genituen; gainontzeoak, Portugalen edo Argentinan, hasiberriak dira eta ez dute ondo ezagutzen nolakoa den frontoian jokatzeko gurpildun aulkian. Gainera, besoan lesio bat izan dut eta nire onera guztiz etorri ez naizen arren, orain urrirako prestatzen ari naiz Argentinarako,

“Aurkezpen pasean azkenekoak ateratzeko esan zigutenean, itzela izan zen”

selektzioa erabakitzen baitu zeinek jokatu duen. Nire maila berriz berreskuratzeko itxaropenarekin ari naiz, eta

lortzea espero dut.

Aurten lehen aldiz aritu zarete Nazioen Ligan Euskal Selektzioaren izenean. Zer esanahi izan du aldaketa horrek zuretzat?

Futbolearen ere hori lortzen saiatu dira eta oraindik ez dute lortu. Politikak oraindik kirola nola zikintzen duen ikusi daiteke, horregatik kirolari asko jokatu gabe geratzen dira eta. Benetan polita izan zen. Aurkezpen pasean azkenekoak ateratzeko esan zigutenean, itzela izan zen.

Nola egiten da Nazioen Liga jokatu duen kirolarien



aukeraketa?

Egia esanda, 6 katu gara: Gipuzkoako 3 bikote, 2 Nafarroakoak eta Bizkaia 4 dauzka, baina 2 inklusiboak direnez horiek ezin dute parte hartu. Aukeratutako 6ak 3 egunez Bizkaian entrenatzen aritu ginen eta bertan egin zen aukeraketa. Azkenean zain egon behar zara ea aukera etorriko zaizun. Gero urrian ikusiko dugu esperientzia errepikatzeko aukera izango ote dugun.

15 urte igaro dira pala egokituan ibiltzen hasi zinetik, ezta?

Nik istripua 1994. urtean izan nuen. Lagun batekin bizikletan nindoala, kamioi batek harrapatu ninduen eta hanka galdu nuen. Nire bizitza guztian ostalaritzan lan egin dut eta ibilbide horren ostean familiarekin garagardotegi bat ireki genuen, Ardi Beltz, ni bezala, eta bertan, Iurgi Olasagasti lankideak barraren atzetik pala, aulkia eta bi botak probatzea proposatu zidan. Hurrengo egunean bertan probatu nuen eta niretzat sekulako askatasuna izan zen. Aurretik kirola egitea gustatzen zitzaidan, baina jada korrika egitea ezinezkoa zaidanez, hau aurkitzea izugarria izan zen.

Palaz gain, txirrinduan ere aritzen zara.

Istripuaren ostean, 22 egun koman pasa ostean etxera bidali nindutenean, Ramon Unanue entrenatzaileak arrabolean jarri ninduen hanka bakarrarekin eta bizikletarekin kalean ibiltzen saiatu nintzen arren, konturatu nintzen hori ez zela niretzako. Ordu hartan belodromoa erakutsi izan balidate, gauzak bestelakoak

“Erraztasunak denok dauzkagu, horiek ateratzeko modua aurkitzea da kontua”

“Adibidez, jokatzeko erabiltzen dudun gurpildun aulki egokitua 8.000 euro balio ditu”

izango lirarteke.

2010ean palan hasi nintzenean, jakin-mina sortu zitzaidan Iurgirekin eta 2011n bizikletarekin. 6 hilabetean,

2012ko txapelketara joan nintzen Euskal Selektzioarekin. Brasilgo Olinpiadetara begira geunden jada, entrenatzaileak entrenatzen zituen kategoria guztietako gaztetxoaren aurka entrenamenduetan norgehiagokan, eta bat-batean femurra puskatu nuen ia geldirik nintzela. Istripua 12 urterekin izan nuenez, nire hezurak ez ziren behar bezala garatu eta bertan jakin nuen ere muinoiaren edo hankaondoaren itxiera ez zegoela behar bezala eginda. Beraz, bigarren ebakuntza bat egin behar izan nuen, baina behintzat horri esker nire emaztea ezagutu nuen. Bartzelonako traumatologo batek egin beharreko ebakuntza guztiak egin zizkidan azkenean. Txapelketa batean deskubritu nuen 6 urterekin hanka moztu zioten mutiko bat, eta txundigarria da benetan 8rekin aulkian nola moldatzen den ikustea. Berarekin hitz egin nuen aholkuak emateko eta, niri gertatutakoaren ostean, osorik zuen hanka zaintzeko esan nion, ahal nuen guztian lagundu nahian, medikuek arreta soilik hankaondoari jartzen diotelako.

Nolakoak dira zure entrenamenduak?

Hasieran astean behin entrenatzen genuen soilik eta gero bakoitzak bere kabuz. Usurbilen bizi izan nintzenean lagun batekin batera entrenatzeko geratzen nintzen asteburuetan. Entrenamenduetan keinu ezberdinak nola egin behar diren edo baita pentsamenduak ere lantzen dira. Gauzak azkar eginda,

kiroletik

BIDASOA ESKUALDEKO KIROLAREN TXOKOA

info@kiroletik.eus | (+34) 943 04 20 52 | www.kiroletik.eus



mr
electric systems

ZERBITZU ELEKTRIKO GUZTIAK ESKURA IZANGO DITUZU

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK - NEURRIRA EGINDAKO ARGIEAN AZTERKETA - DOMOTIKA ETA AUTOMATISMOAK
BIDEO ZAINTZAK ETA ALARMAK - AHOTSA ETA DATUAK - PROIEKTUAK ETA LEGEZTATZEA - MANTENTZE LANAK

info@mrelectricsystems.com | (+34) 669 30 23 12



zaila da egin beharreko gauzekin asmatzea. Erraztasunak denok dauzkagu, horiek ateratzeko modua aurkitzea da kontua. Nik badakit nire maila igotzeko aurkariei maila igotzen lagundu behar diedala. Azken batean, jende berria kirolean sartzen denean erakutsi egin behar zaio.

Kirol honetan besoak oso garrantzitsuak dira, beraz, horiek ez lesionatzea garrantzitsua izango da, ezta?

Hanka bakarra izanda, makuluarekin ibiltzen naiz, beraz hor besoarekin indarra egiten ari zara, edo bestela erdi saltoka ibiltzen naiz, etxean batez ere. Horri esker oreka eta indarra ere lantzen dituzu. Lesioak, beraz, ez dira konturatu gabe etortzen, baizik eta gehiegizko esfortzuak egiteagatik edo ondo ez estiratzeagatik edo luzatzeagatik. Gainera, batzuetan lesioa duzula konturatzen zarenerako beranduegi da eta arazoa larritu egin zaizu. Azkenean, 4 katu garenez pena ematen dizu jokatzeari uzteak. Nik 2 urtez besoan lesio bat izan nuen eta eskuan hainbeste min izatera iritsi nintzen ia ezin nintzela makuluarekin ibili. Ondorioz, masajistan dirua utzi eta utzi, baina talka-habailen bidez egindako tratamenduari esker dexente hobetu dut, orain behintzat badaukat eskua ixtea. Orduan, esandakoa, ia ezinean ibiltzen zara jokatzeari ez uzteko. Horrelako kiroletan ibiliz gero, sorbaldak lesionatzea oso ohikoa

izaten da, baina gero lesio mota ezberdinak daude. Beraz, kontu horietan laguntzeko ere babesleak behar izaten ditugu. Adibidez, masaje emaile baten laguntza lortuz gero, gurekin batera Argentinara etortzeko aukera izango luke. Izan ere, gure artean giro ona dugu eta kanpora goazenean hori asko eskertzen da, gurekin laguntzera etortzen direnak ere gustura egoten baitira.

Aipatu duzunarengatik, jokatzeko dirua zuen poltsikoetatik ateratzen da, ezta? Beraz, babesleak izateak asko lagunduko luke.

Babesaz galdetuta, oraingoz babesle bakarra goian dagoena da. Kirolean hastea bereziki gogorra da, gastu handiak dakartzalako, eta denak bat-batean iristen dira. Adibidez, jokatzeko erabiltzen dudun gorpildun aulki egokituak 8.000 euro balio ditu. Femurra puskatu aurretik korrika hasi nahi nuen berriro eta hanka bat erosteko tapoi solidarioak biltzen aritu nintzen. Milaka tapoi jaso genituen, 14.000 euro inguru biltzeraino, nahiz eta hanka horrek gehiago balio zuen. Baina Nafarroan Ogasunaren aurrean deklaratzekoan, dohaintzan bildutako dirua

“Gainera, batzuetan lesioa duzula konturatzen zarenerako beranduegi da eta arazoa larritu egin zaizu”

biltzeraino, nahiz eta hanka horrek gehiago balio zuen. Baina Nafarroan Ogasunaren aurrean deklaratzekoan, dohaintzan bildutako dirua



C.D. SAN MARCIAL - 2023 - 2026 BABESLETZA

TALDEAREN **FUTBOL EGOKITUAREN** ETA **OINARRIZKO FUTBOLAREN** PROIEKUAN KOLABORATU
ENPRESA BAT BADUZU ETA KLUBAREN FAMILIAKO KIDE IZAN NAHI BADUZU, **ZURE ZAIN GAUDE!**

#GOAZENSANMARCIAL

Ama Birjinia Mirarietakoa Kalea 7, Irún | 943 96 99 12 | patrocinos@cdsanmarcialirun.com



izan arren, 6.000 eurorekin geratu nintzen; Ogasunak 8.000 eraman zituen.

Lortutako diru horrekin aulki hau erosi nuen. Besteentzako aulkiak lortzeko, Usurbilen Mikel Goñi, Coro, Lasa eta beste batzuk etorri eta La Caixarekin antolatutako ekitaldian dirua lortu genuen. Guztira, 4 aulki erosi ziren, 3.800 euro ingurukoak. Dena dirua gastatzea da. Txapelketak jokatzeko mugitzen garenez, babesleei ikusgarritasuna eman diezaiekegu, beraz, Irungo edo inguruko jendeak ni babestea asko eskertuko nuke. Adibidez, Errazkin bizikleta dendako lagun batek ahal duen guztian laguntzen nau eta biziki eskertzen diot.

Gainera, kontuan izan behar da zuena ez dela kirol profesionala, baina profesionalean bezala, denbora asko eskatzen du.

Kirol honetan aritzeko aukera izate hutsa asko eskertzen da. Ni ia-ia aitzindarietako bat izan nintzela esan daiteke, baina jende gehiago animatu nahiko nuke kirol honetan aritzera. Hau da, gorpildun aulkian gaudenontzat, saskibaloia eta mahai-tenisa ez dira aukera bakarrak. Atletismoa ere probatu nuen, baina gorputzarentzako jarrerak txarrak ziren, gainera orain gutxi esklerosi ankilosatzaila izeneko gaixotasun bat dudala jakin dut eta orain tratamendua hartzen hasi naiz hori eteten saiatzeko, gaixotasun degeneratiboa baita eta gorputzari eragiten dio. Baina zortea daukat hau dena bizitzeko aukera izan dudalako eta, horrez gain, aurrera jarraitu behar da, ez dago besterik.

Urtean zehar zein txapelketa jokatzeko dituzu?

Batetik, Gipuzkoako Txapelketa dago, oraindik hasi gabe dagoena. Bertan 6 gara, 3 bikote. Orain dela bi urtera arte banakako txapelketa jokatzeko nuen, bost urtez jarraian irabazi nuena. Frantzia barrena ere hainbat txapelketa jokatzeko ditugu eta aurten jende gutxiago gaudenez, ezingo dugu txapelketa bukatu eta, beraz, titulurik gabe geratuko gara, nahiz eta internazionala izan. Gero Master Cupean bost saio edo egingo dituztela esan digute, baina hori jada hurrengo urterako. Aurten Master Cup bat izango dugu. Horrela, urrirako prestatu beharko gara eta motibatuta nago horretarako.

Zeintzuk dira zure helburuak datozen urteetara begira?

Beti prest egon gara kirol hau leku batetik bestera eramateko eta erakusteko. Orain kiloak galtzen hasi eta Gipuzkoako txapelketan lehiatzeko asmoa dut, bikotea herren ez uzteko. Aurtengo helburu nagusia Argentinan lehiatzeko aukera lortzea da. Ondo prestatu behar gara horretako eta horretarako funtsezkoena entrenatzea eta jokatzeko da, nahiz eta batzuetan kostatu. Kemen pertsona ezinduen kirol klubaren izenak dioen bezala, kemen behar dugu honetan aritzeko.

“Aurtengo helburu nagusia Argentinan lehiatzeko aukera lortzea da”

Fernando Vergara
Fotógrafo
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com
Avda. LETXUMBORRO 100, 2º
IRUN 20305 GIPUZKOA
943 840 113 - 647 930 484

BODAS 2026-2027

STUDIO
GO
VER
FOTO



BETI GAZTE

Argazkia: Estudio Gover →

LOS TRANKILOSEN ERRITMOAN LASAITASUN GUTXI ETA FESTA GIROA NAGUSI

Izenak kontrakoa dioen arren, Los Trankilos taldeak ez daki geldirik egoten. Koadrila baten lagunartetik sortua, Inauteriak modu berezian bizitzea dute helburu: hilabeteetako prestaketa lanen ondoren, karroza, mozorroak eta umorez betetako parodiak eramaten dituzte Irungo kaleetara. Egun 25 edo 30 lagun inguruk osatzen dute taldea, baina Aitor Arzuaga eta Asier Arbelaitz izan dira oraingoan egitasmoa aurkezteko bozeramaileak.

Nolatan hasi zineten Los Trankilos izenpean ekintzak antolatzen?

Aitor: Gu koadrilan antolatzen ginen Inauterietan. 1969. urtean sortu zen elkarte hau, Los Trankilos. Gero, elkartearen berez desagertua zegoen, eraikina bota zutela medio eta beste kontu batzuegatik. Ordutik, ordea, elkartearen enteak edo muinak bizirik jarraitu du eta urtean bi ekitaldi ditu fanfarreak: San Pedro egunean eta Erregeen egunean egindakoak. Guk koadrilan atera nahi genuen eta baimenak eskatzea beharrezkoa zenez, bi gauzak elkartu eta pixkanaka, Inauterietan gain, gauza gehiagotan ere hasi gara parte hartzen. Gu koadrilan ateratzen gara, bazkaria egiten dugu eta gero katxondean ibiltzen gara.

Beraz, Irunen Inauteriak bizitzeko proposamen berri batekin sortu zaretela esan daiteke.

Asier: Bai, hori da. Ohikoena izaten da koadrilan mozorro bat erabakitzea. Egia da guri festa orokorrean asko gustatzen zaigula eta, batez ere, Inauteriak, festa polita baita, euskal kulturaren oso sustraitua. Lagunen artean ospatzeaz gain, karroza egin eta parodia bat sortzea bururatu zitzaigun desfilean parte

↓ Argazkia: Estudio Gover



hartzeko, egun osoko entretenimendua izateko. Gainera, ez da egun bakarreko kontua; aurretik hilabeteetako prestaketa dago. **Aitor:** Bazkari eder bat egiten dugu, behar den moduan.

Nola banatzen edo antolatzen dituzue prestaketa lanak Inauterietara garaiz iristeko?

Aitor: Protokolo oso zehatza dago horretarako. San Tomas eguneko bazkarian erabakitzen dugu normalean. Aurten beranduago izan da, txosnan lanpetuak egon garelako. Koadrilan ideiak bota eta erabakia hartu ostean, gutako norbaiten baserrian elkartzeko boluntario bat baino gehiago izaten dugu beti. Lanak banatu egiten ditugu, noski, batzuk mozorroez arduratzen dira, besteak berriz karrozaz, parodiaz edo bazkaria prestatzeaz. Esan daiteke, guk 2 hilabete pasatzen ditugula Inauterietan eta beste bi Sanmartzialetan.

Asier: Askotan lanegunetan elkartzeko gara afariak egin eta ideiak adosteko. Adibidez, aurreko ostegunean horrela hasi ginen, ideiak bilatzen, eta azkenean sagardotegian bukatu genuen, baina egia da horrela ideia asko ateratzen zaizkigula.

Hainbeste kide izanda, erraza da erabakietan adostasuna lortzea?

Aitor: Esan daiteke jada eredu bat sortu dugula. Beti gairen batekin sartzen gara, askotan gure buruarekin. Denak koadrila berekoak izan ez arren, inguru berean mugitzen garen jendea gara. Horrela, Inauterietan puntu ironikoa dutela ulertzen dugu. Aurten, adibidez, ideia bat baino gehiago genuen eta denen

“Inauterietan puntu ironikoa dutela ulertzen dugu”

Aitor Arzuaga, Los Trankiloseko kidea

artearen bozkatzuz aukeratu dugu gehien gustatu zaiguna. **Asier:** Ideia batzuk ez dira hasieratik denontzat gustukoak, baina gero denborarekin grazia



harrapatzen zaie. Denon artean kontsentsu batera iristen saiatzen gara. Mozorrotzeaz gain, dibertsio une hori aprobetxatzen saiatzen gara, ahal dela, eskualdearekin nolabait lotuz.

Los Trankilos izena erabili arren, lasaitasuna ez da zuen ezaugarrietako bat, festa musikarekin ere girotzen baituzue.

Aitor: Elkartearen helburuetako bat hori dela esan dezakegu: herria girotzea. Juerga ona bota arren, giro osasuntsua izan dadin ahalegintzen gara.

Asier: Desfilean zehar gure parodia egiten dugu. Behin amaituta, musika jartzeaz ere arduratzen gara, baina hori noiz eta non egingo dugun iragartzeko azken unera arte itxaroten dugu. Gauaren martxa hartu eta kalez kale ibiltzen gara Inauteri gaua alaitzen, poteoan.

Aurreko urtean antzera, aurtengo gaia ere azken momentura arte gordeko duzue sekretupean?

Asier: Hasieratik jendea galdezka dabil etengabe, ia-ia guk ere oraindik aurtengo erabakia hartu gabe genuenean ere. Sekretu hori Inauterietan xarmaren parte ere badela uste dugu.

Ardura eta festa uztartzea erraza zaizuela esango zenuke?

Asier: Sentitzen duguna natural egiten saiatzen gara, euskarazko kantu batek dioten moduan. Noski, egiten duguna arduraz egiten saiatzen gara beti. Giroa jartzea da gure helburu nagusia eta jendeak erantzuten du, beraz, badirudi lortzen dugula. Jendeak gogotsu erantzuten duen bitartean, guk ere gogoz jarraituko dugu lanean.

Aitor: Behin jaia amaituta askotariko balorazioak jasotzen ditugu, baina orokorrean denak positiboak. Aurreko urtean arrakasta erabatekoa izan zen, aurten ikusiko dugu zer gertatzen den.

Asier: Aurreko urtekoak goia jo zuen, Youtuben bideoak eta

guzti daude. Noski, horrek ere guri presioa eragiten digu urtetik urtera mailari eusteko, baina nik uste batetik edo bestetik lortuko dugula.

Inauterietan gain bestelako ekitaldietan ere hasi zarete parte hartzen: San Tomas, “Mi Dulce Guerrero” elkartearen ekimen solidarioak, Sagardo

Eguna... saltsa askotan zabiltzate.

Asier: Badakigu ezin garelako ekintza guztietara iritsi, baina egutegian data jakin batzuk markatu ditugu Los Trankilosentzat. Inauterietan kontua horrela sortu zen, ezerezetik. Gero “Mi Dulce Guerrero” elkarteari kale giroa sortzen lagundu diogu bere egitasmoan eta San Tomas egunean berriz, txosna jartzeko aukera ikusi genuen. Urtean erreferentziatzko 4 edo 5 ekitaldi hartu eta horiekin aurrera egitea dugu asmoa.

Aitor: Santiagoko jaietan ere parte hartu genuen eta oso pozik geratu ziren. Egiten dugunak ez du beste misteriorik, herri giroa sortu eta jendea gustura ibili dadin lagundu.

Beraz, ba al duzue jada egitasmo berriren bat buruan bueltaka?

Aitor: Oraindik ez dugu ezer lotua, baina ideia da aurreko urtekoaren antzekoa izango den egutegi bati jarraitzea. Jada egindakoez gain, aukera berriren bat sortzen bada ikusiko dugu gogotsu ote gauden eta, bakoitzaren lanarengatik ez bada, ea joaterik ba ote dugun.

Asier: Egia da Irun kanpotik gonbidapen batzuk iritsi zaizkigula, baina ezin gara hainbestera iritsi, herri bakoitzean egin dezatela gurearen antzeko zerbaitekin. Gu hemen geratuko gara, beti auzoei laguntzeko prest eta iristen zaizkigun proposamentzat ia beti baietzko erantzunarekin ahoan.

“Horrek ere guri presioa eragiten digu urtetik urtera mailari eusteko, baina nik uste batetik edo bestetik lortuko dugula”

Asier Arbelaitz, Los Trankiloseko kidea

ARAMBURU

ZURE LEIHO-FABRIKATZAILEA IRUNEN - 30 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA DUGU SEKTOREAN.

LEIHO, ATE, BARANDA, PERTSIANA ETA TOLDOAK INSTALATZAILE ONENEN BERMEAREKIN

Gabiria Kalea 42, Irun | (+34) 943 62 22 57 | info@ventanasaramburu.com | www.ventanasaramburu.com

baikara
elatzeta
IKASTETXEA

Araba kalea, 44 20305 Irun.
943 89 93 45
idazkaritza@elatzeta.net
https://www.elatzetaikastetxea.net/

Aurrematrikulazio epea:

■ Otsailaren 2tik 13ra arte.

Eskatu zure hitzordua!!





CBA Kultur Gunea
 943 50 54 44
 igazte@irun.org
 607 77 11 73
 www.irun.org/igazte

IRUNBIXIN, ZURE IRITZIA ENTZUNGAI



Irun hobetzeko zure iritzia partekatu nahi baduzu, Artia Gaztelekuan burutuko den **Irunbixiren Haur eta Gazteen Partaidetza Sistemari** baduzu parte hartzeko aukera paregabea. Bertan Irunekin lotutako erabakietan ideiak proposatu, zure ikuspegia eman eta parte hartu ahal izango duzu, zure adineko beste gazteekin batera, giro parte-hartzaile eta dinamiko batean.

Ez da aditua izan behar, ezta dena jakin behar ere. Nahikoak dituzu parte hartzeko gogoa eta zure ahotsa entzunazteko nahia. **12 eta 17 urte bitarteko gazteentzako ekintza** izango da.

Ekintza **otsailaren 26an, ostegunean, 17:30etik 19:30era** izango da.

Izen-emateak eta INFO+: Gaztelekuan bertan, whatsappen (681 946 798) edo korreora (gazteleku_artia@irun.org) mezu bat bidaliz eman dezakezu izena.

TATUAJE TAILERRA



Otsailaren 7an **Martindozenea Gaztelekuan tatuaje tailer praktikoa** egingo da, gazteak tatuajeen munduan murgiltzeko.

4 txoko desberdin izango dira: plantillak sortzeko txokoa, henna tatuajeen txokoa, paperean diseinuak egiteko txokoa eta azal sintetikoan tatuatzeko txokoa. Txoko batetik bestera pasako zera tatuatzeko prozesua hasieratik bukaera arte ezagutzeko. **Animatu eta eman izena!**

Izen-emateak: Gaztelekuan bertan edo whatsappera (690706471/656794372), Instagramera (@gazteleku_martindozenea edo @gazteartean_irun) edo korreora (gazteleku@irun.org edo konekta@irun.org) mezu bat bidaliz eman dezakezu izena.

INAUTERIEN PHOTOCALL-A



Otsailaren 14an **Zabaltza plazan** egongo gara zuen zain **arratsaldeko 17:00etatik 20:00ak arte** inauterietako photocallarekin. Zatoz argazkia ateratzera eta ondo pasatzera!

DOKUMENTALA



“Avenida: memoria histórica sobre el Bidasoa” ikus-entzunezko dokumentala da, Gachiro Films eta María José Noain Maura tandemaren Ribera ikerketa bekaren emaitza.

Data: Otsailaren 6an, ostiralean.

Lekua: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Hizkuntza: Zati bat euskaraz egingo da.

DANTZA



Iker Karrera zuzendari eta koreografoak **The Room Where It Happens** lana eskainiko du Amaia Antzokian.

Data: Otsailaren 21ean, larunbatean.


Lekua: Amaia Kultur Zentroa.

Ordua: 20:00etan.



KULTURA

FAMILIENTZAKO ANTZERKIA



Markeliñe konpainiaren “Hodei guztien gainetik” antzezlanak bere lanaren errutinan harrapatuta, jolasteko plazera ahaztu duen aita lanpetu baten istorioa kontatzen du.

Data: Otsailaren 6an, ostiralean.

Lekua: CBA Kultura eta Sorkuntza Zentroa.

Ordua: 18:00etan.

Hizkuntza: Euskaraz.

KONTZERTUA



“Piano baten inguruan” kontzertuan Jakes Txapartegik, Esther Barandiaranek eta Iñaki Salvadorrek bakarka eta taldean interpretatutako piezak eskainiko dituzte.

Data: Otsailaren 27an, ostiralean.

Lekua: CBA Kultura eta Sorkuntza Zentroa.

Ordua: 18:00etan.



PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA BERRIZTATZAILEA ETA INTEGRATZAILEA

Aurrematrikulak egiteko epea: otsailaren 2tik 13ra

Victoriano Juaristi, 1. IRUN 20304. Tel.: 943 89 91 61. E-posta: 013372aa@hezkuntza.net



www.eguzkitza.hezkuntza.net



PAPERDENDA - KOPIADENDA - ESKULAN TAILERRA

Luis Mariano kalea 12 | (+34) 943 63 93 01 | irun@folder.es | www.folder.es

Proiektuak eta erreformak



Sukaldeak eta etxeko altzariak



Interiorismo estudioa



Showroom-a

